

Berrigara

2320-200

KONTARTE
joan brosa
poesia
iragankorra

taun
taunen
eskutik

CITROËN C5 BERRIA

Bergaran dagoeneko. Zatoz probatzera!



EROSOTASUN ERABILERA
ETA SPORT ERABILERA



SATELITE BIDEZKO
NABIGAZIO SISTEMA



BAT-BATEKO BALAZTATZE
LAGUNDUA



ARGIEN PIZTE
AUTOMATIKOA

GASOLINA BERTSIOAK: 1.8i 16V, 2.0i 16V, 2.0 HPI, V6. TURBO DIESEL BERTSIOAK: 2.0 HDi, 2.0 HDi 110, 2.2 HDi 136.



CITROËN

ION AUTOAK

Amillaga, 36. Bergara. Tel. 943 76 47 49 / 73



Hauteskundeen ajea

Aitziber Azkondo / kazetaria

Hauteskundeen ajea amaitzear bada-go ere, tarte txiki honetan, dagoneko denok dakizkigun emaitzen eta balorazioen inguruan baino, Madrileko komunikabideek izan duten sentsibilizazio falta eta egin duten eraso kanpainaren barruan zerbait aipatu nahi nuke. Inoiz ez dut hain gertutik hauteskunde batzuen antolakuntza bizitzerik izan, hiru hilabete eman ditut, komunikazioari dagokionez, hauteskunde gaua antolatzen, eta benetan lan neketsua bada ere, neketsuagoa izan da Madrileko komunikabideen jarrera ikusi eta jasatea.

Estatuan eskaintzen diren baino zerbitzu gehiago eskaini dira komunikazio plangintzan, eta argitasun eta neultraltasuna izan da programazio guztian. Horri esker, mugimendu guztiak lupaz begiratu izanak ez du inolako ondorioz sortu. Estatuan antolatzen diren bestelako hauteskunde kanpainetan ez da ez horrelako zerbizurik ikusi orain arte, eta Italian gertatu dena ikusi ondoren, zer esanik ez. Komunikabide, instituzio eta alderdi politiko guztiei eskaini zieten Intranet zerbitzua (datuak denbora errealean jakiteko aukera ematen duen sare pribatua) informazioa lehenbailehen igor zezaten, www.elecciones.net web orrialdea, (hor ere datuak denbora errealean eman ziren), hauteslearen galderak jaso-

tzen zituen bulego eta doako telefonoa e.a.

Hauteskunde gauari dagokionez, estatuko komunikabideek egunean zehar egin ziren datuak eta informazioa igortzeko agerraldiak eta prentsaurrekoak, euskaraz eta tarteka gaztelaniaz egitea oztoppo zela adierazi zuten. Konexio zuzena egiteko arazoak zituztela eta ea aldatzerik zegoen, guztia gaztelaniaz jarraian. Eta nahi izanez gero, hauteskunde emaitzak Euskal Herrian jakinarazi baino lehen eurei aurreratu genien, "esklusiba" lortzeko, batek daki zer gehiago egiteko.

Fragaren adierazpenak entzun eta gero, beharbada, euskara jaioberriein besterik erabiltzen ez den hizkuntza dela, edo noiz-behinka armairutik atera, astindu batzuk eman eta kito! egiten dugula uste dute. Egia esan, ez zidan horrek harridura handirik sortuko, entzundakoak entzun eta gero.

«Hego Amerikako, Europako... ordezkariek izan genituen hauteskundeak jarraitzen. Euskal Herrira gerturatzeak eman die benetako errealitatea ikusteko aukera»

Bestalde, horrenbeste atzerriko kazetari eta komunikabide Euskal Herrira gerturatzeak munduan hemengo egoerak sortzen duen ikusmira handia bermatzen du. Hego Amerika, Europa, eta Japoniako ordezkariek izan genituen hauteskundeak jarraitzen. Euren hitzetan, Euskal Herrira inguratzeak eta egoera gertutik ikusi izanak eman die benetako errealitatea ikusteko aukera. Horrek asteleheneko atzerriko prentsa-izenburuetan eragina izan zuen. Munduan zehar herrialde gehienek Euskal Herriko gorabeherak Madriletik jasotzen dituzte, beraz, pentsa...

Ikaragarria da komunikabideek gizartean duten eragina, eta hori hementxe ongi baino hobeto dakigu. Gure herrialdeak dituen aberastasunen berri ematen tinko jarraitu behar dugula uste dut. Madriletik urrun gaudela eta ez dugula zerikusirik argi eta garbi utzi mundu osoan. Euskal Herriak Euskal Herria izateagatik jasotzen duen areta berezia egunean da eta argi dago gure herrialdearen inguruan hitz egiteko gugeu garela aproposenak, eta ez dugula beste inoren beharrik. Politika, kirola, kultura..., berdin zait zein gaik, beti izango du kanpotik ezarritako zerbait. Euskal Herria oso-osorik ezaguna izatea nahi badugu, kanpotik erantsi digutena ekiditzea beharrezkoa da. Eta hori gure lana da.<

barruan



A. M. Lizarduikoa

Filosofoa

«Europar geratzen den azkenengo herri indigena gara euskaldunak»



Moises Lazkano

Olaso dorreko zaintzaillia

«Erretirauta nago, baiña Olaso dorria zaintzia 'hobby' bezela daukat»



Rachael Olabarria

Futbol jokalaria

«Futbola areto futbola baino gogorragoa da; orain ez dut horrenbeste gol sartzen»

6.

13.

17.

hi, gazte!



BEKAK

Aleman, frantses eta ingeles ikastaroak atzerrian. Eusko Jaurilaritza. Ikastaroak eta praktika-ikastaroak egiteko, 500 plaza. DBH-ko 2. zikloko, Batxilergoko eta goi-heziketa zikloetako ikasleendako. Epea: maiatzak 20.
Euskara. Eusko Jaurilaritza. HABE. Hamasei urte beteta izatea. Autoikaskuntza-sistema bidez euskara ikasten dutenendako languntzak. Epea: irailak 30.

JARDUERAK

Auzolandegiak. SCI-SVI. 2001eko Udako nazioarteko auzolandegiak. Albania, Alemania, Armenia, Korea, Grezia, Polonia, Thailandia, Errusia... Epea: maiatzaren 3tik plazak bete arte.

IKASTAROAK

Udako ikastaroak. EHU. Hainbat arlotako mintegi, jardunaldi eta ikastaroak: hezkuntza, gizarte-zientziak, medikuntza, zuzenbidea, ingurumena... Izena emateko epea: maiatzaren 7tik aurrera.

Bartzelona. Victor Hernando antzerki-estudioa. Antzerki eta interpretazio 2001eko udako ikastaroak. Gospel teknika, antzerkiko koreografia, trapezioa, orka akrobatikoa. Epea: plazak bete arte.

SARIAK

Musika. Miranda de Ebroko Udala. Miranda de Ebro Hiria pop-rockeko maketen I. lehiaketa nazionala. Epea: ekainak 1.
Moda. Alacanteko Udala. Gazte sortzaileendako I. moda-diseinu lehiaketa. Hamar bilduma hautatuko dituzte eta asistentzia egiaztatzen duen diploma bana emango dizkiete. Epea: irailaren 3tik 29ra.
III. "8 de Marzo" argazki eta kartelen lehiaketa. Avilesiko Udala. Gaia: "8 de marzo". Epea: maiatzak 31.

LAN ESKAINTZAK

Suhiltzaileak. 43 lanpostu: suhiltzaile-kaboak (33), sarjentuak (2). Gipuzkoako Foru Aldundia. Lehendakari-tza. Lehiaketa bidez. Epea: maiatzak 23.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekode, ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-ei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak


Juan Martin Elexpuru

Biribilkote

Biribil samarra.

– *Jardiñian jarri daben arrizar biribilkote auzo ze dok, lurrai eusteko ala monumentua?*

– *Patata klase batzuk luzangak izaten die eta beste batzuk biribilkotiak.*



hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

Maiatzak 10, eguena

Maiatzak 11, egubakoitza

Maiatzak 12, zapatua

Maiatzak 13, domeka

Maiatzak 14, astelehena

Maiatzak 15, martitzena

Maiatzak 16, eguaztana

| | Temperatura maximoa | Temperatura minimoa | Euria |
|--|------------------------|------------------------|----------------------|
| | 19 °C | 10 °C | – 1/m ² |
| | 25 °C | 7 °C | – 1/m ² |
| | 28 °C | 10 °C | – 1/m ² |
| | 20 °C | 11 °C | – 1/m ² |
| | 24 °C | 9 °C | – 1/m ² |
| | 25 °C | 10 °C | – 1/m ² |
| | 24 °C | 12 °C | 1,2 l/m ² |

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.

Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Monja

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.

Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 18:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA 19:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA 20:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA 21:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

MARTITZENA 22:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA 23:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA 24:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

OGIA

DOMEKA 20. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun Etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak 943 76 51 06

GARRAIDAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultur Etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Jubilatu Etxea. Bergara 943 76 21 40

Antzuolako jubilatu elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notaritza 943 76 10 73

oharrak

■ **1958**an jaiotakoen afaria ekainaren 16an Txuringo jate-txean. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) Irrintzi edo Usoa tabernetan.

■ **1960**an jaiotakoen afaria ekainaren 23an Osintxuko Txuringo jate-txean, 21:30ean. Aurretik taldeko argazkia aterako da Frontoian, 21:00etan. Izena ematea (2.000 pezetako depositoa) BBVA banketxean irekitako kontu korrontean ekainaren 15era arte egin daiteke.

■ **Pazkuetan Gaztetxean** lan egiteko zerrendak hainbat tabernetan daude. Egubakoitzean lan egiteko Gaztetxean eman behar da izena, zapatukoa Pol-Polen dago, domekakoa Ziripoten, astelehenekoa Arranon eta martitzenekoa Etxagin.

■ **Odol ateraldia** eguaztenean, maiatzak 22, Seminarioko lokalean, 18:30ean.

Hurrengo alean, maiatzaren 25etik maiatzaren 31ra bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.

zorionak!



Maria Martinez
18an 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak, Marisa eta Yanire.



Montse Hernando
23an 27 urte.
Urte askotarako!
Auskalo nor.



Josune Agirre
20an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Haizea Iñarra
21ean 7 urte.
Urte askotarako!
Maddi eta gurasoak.



Tamara Zafra
20an 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpa.



Jose Zafra
21ean 48 urte.
Urte askotarako!
Emaztea eta alabak.



Mireia Manso
19an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jose Antonio Cabo
19an 23 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Joseba Urzelai
20an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Julen Zengotita
24an urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Karmele Uribesalgo
19an 5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak; batez ere, Beñat.



Mikel Luna
23an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jesus Maria Cabo
13an 27 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Ziarsolo
20an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Satorraren lagunak.



Mikel Gutierrez
21ean 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia Aitzol.



Miren Urria
24an 2 urte.
Urte askotarako!
Jone, aitaxo eta amatxo.



Jane Agirre
18an urtebete.
Urte askotarako!
Aimar eta familiakoak.



Joseba Larrañaga
21ean 28 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iker Gorriti
18an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; batez ere, Josu.



Josu Gorriti
18an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; batez ere, Iker.



Lisette Hilhorst
20an 24 urte.
Urte askotarako!
Lagun berezi bat.



Julia Gallastegi
22an 84 urte.
Urte askotarako, amama!
Maite eta Maddi.

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

**INGELES
FRANTSESA
ALEMANA**

9600 %20 deskontua
Uztailaren 2tik 20ra.

- GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.
- ADIN GUZTIAK:
HAUR, GAZTE ETA HELDU
- EGUNERO HIRU EDO LAU ORDU.




943 76 06 87. Ibargarai, 18.

MATRIKULA ZABALIK EKAINAREN 29ra ARTE

Eguaztenean, euskal zibilizazioaren gaineko hitzaldia egin zuen Alfontso Martinez Lizarduikoak kultura etxean. Berbaldia Jardun elkar-teak antolatu zuen. Guk euskaldunon jatorriaz jardun dugu Martinezekin.

ALFONTSO MARTINEZ LIZARDUIKOA
Filosofoa

«Europar geratzen den azken herri indigena gara euskaldunak»



Alfontso Martinez Lizarduikoa kultura etxean eman zuen hitzaldia.

G. Badago euskal zibilizaziorik?

E. Nire tesiaren arabera, bai. Bueno, nire tesia hipotesia da, testuinguru bat aztertzeko. Nire ustez, zientzian egin diren ikerketetan, antropologia, genetika, hizkuntzalaritza eta arkeologian, nabarmen agertzen da, aspalditik, Pirinioen bi aldeetan, Paleolito eta Neolito garaian dagoeneko, gurekin harremana zuten herriak zeudela Europar sakabanatuta.

G. Euskal zibilizazioa, hortaz, Paleolito arokoa da?

E. Goi Paleolitoraino, behintzat, joan behariko ginateke. Garai hartan ikusten dira, Pirinioen bi aldeetara, gainera, kulturalki trinkoak diren herriak: euren hizkuntza, ohitura eta mitologiarekin. Nukleo hori, Goi Paleolitoan hemen koka daiteke.

Gero, mugimendu migratorioak gertatu ziren, Europa eta Afrika aldera, baina gunea hemen dago. Hortaz, esan dezakegu gaurko Euskal Herria dela, garai hartako azkeneko arrasto oso minorizatua.

G. Europar gelditzen den azken herri indigena garena esan izan duzu.

E. Bai, aspalditik gatozelako, eta gure hizkuntza horren lekukoa da.

G. Zein dira garai hartako euskal zibilizazioaren ezaugarriak?

E. Nire ustez, Europar, Neolito garaian euskaldunak han zeuden, beste herri askorekin batera, eta komu-

nean hainbat ezaugarri zituzten.

Oso lotuta zeuden ama-lurrarekin. Mariren mitoak, esaterako, hortik dator. Erlijio moduan edo mundu simboliko moduan bazegoen panteismo naturalista bat. Dena oso lotuta zegoen naturarekin. Jainko bertikala, kristautasunak ekarri ziguna modukoa ez zegoen. Mun-

«Neolito garaiko balioetako batzuk gaur egunera arte heldu zaizkigu; nahiz eta era apalean ailegatu diren»

du nahiko igualitarioa edo oraingoa baino askoz horizontalagoa ei zegoen. Emakumeak oso garrantzi handia zuen sinbolo moduan. Matriarkalismoa zen, ez matriarkatua.

Elementu horiek guztiak orain ere badaude, ez dira galdu, eta hori benetan miragarria da. Gaur egun oraindik, nahiz eta era apalean, horrelako elementuak badira gure artean.

Baina garrantzitsuena hizkuntza da, hots, euskara, aglutinantea izanik, oroimena du, eta txertaturik ditu hainbat elementu lehengo balioei buruz hitz egiten dutenak. Mitologiak ere bai. Eta horiek biek azterketa jarraitzen laguntzen digute.

G. Nola egin azterketa?

E. Mitologiaren kasuan oso argi ikus daiteke. Barandiaranek eta Azkuek oso ondo jaso zuten. Indigenak diren herri guztietan kultura ahozkoa da. Horrela, informazio guztia hizkuntzaren bitartez eta mitoen bidez pasatu izan da belaunaldiz belaunaldi. Hori gure liburu sakratua da. Barandiaranek eta Azkuek desagertzeko zorian zeuden mitoak jasotzea lortu zuten. Lan handia egin zuten; orain bizi izan balira, mitoen erdiak galdu ta egongo lirarteke. Salbatu egin zituzten, eta orain, gazteei dagokizue material hori interpretatzea.

G. Garai bateko balioak nola eman ezagutzera?

E. Hizkuntzak bitarteko dira pentsamendu mota edo nortasun kolektiboa adierazteko. Horregatik, hainbat kritika egiten dizkiogu Euskal Telebistari.

Nahiko saio "amerikanizatuak" eskaintzen ditu, hango balioekin. Eta hori gure kontra egitea da. Izan ere, hizkuntza bezain inportantea transmititzen dituen edukinak dira.

Ramon M. Lili kalea itxita egongo da ibilgailuentzat hamabost egunez

Astelehenean, hilak 21, itxiko dute. Izan ere, Mariaren Lagundia ondoko bidegurutzetik Ibargaraiko errotonda berriraino errepide berria eraikitzen hasiko dira. Oraingoan, Ramon M. Lilitik errotondarainoko zatia egongo dute, eta hamabost egunerako itxiko dute, Pazkoetarako berriz zabalduko baitute.



Argazkiko bide berria amaitzean, hori erabili beharko dugu.

Astelehenean hasiko diren lanetan, Ramon Maria Lili eta Ibargaraiko errotonda berrirainoko errepide zatia egongo dute. Zati horrekin amaitu ostean, Ramon Maria Lili kaletik gorako zatiari ekingo diote, hau da, zuzen, Mariaren Lagundia-

ko bidegurutzeraino. Bigarren zati hori noiz egongo duten, hala ere, zehaztu gabe dago udaleko iturrien arabera. Izan ere, bide berria egiteko, etxebizitza bat bota beharra egongo baita.

Lehenengo zatia amaitzen dutenean, Ramon M. Lilitik errotondara, ibilgailuek bide berri hori erabiliko dute; Ramon M. Liliren zati bat, beraz, baztertuta geratuko da. Bigarren zatia egiten dutenean, kale osoa geratuko da isolatuta.

Lehenengo zatia amaitzen dutenean, Ramon M. Lilitik errotondara, ibilgailuek bide berri hori erabiliko dute; Ramon M. Liliren zati bat, beraz, baztertuta geratuko da. Bigarren zatia egiten dutenean, kale osoa geratuko da isolatuta.

RAMON M. LILI MOZTUTA

Kale berriaren obrak direla eta, moztu egingo dute Ramon M. Lili astelehenean. Mozketa horrek hainbat aldaketa ekarriko ditu herri barruko trafikoaren antolamenduan. Batetik, Espoloia eta Zabalotegi kaletatik datorren trafikoak derrigorrez San Pedro kalerantz jarraitu beharko du; eta bestetik, Barrenkalea eta Irizar kaletik datozen ibilgailuek Komenio kaletik jarraitu beharko dute, ez baita Bidekurtzeta kaletik itteerarik egongo. Beraz, normalean Komenio kaletik eta San Martin plazatik autobus geltoki aldera doan trafikoak, Ibargaraik edo saihebidetik joan beharko du obrek dirauten hamabost egunetan.

Ibargarai kalean bi zuhaitz bota dituzte

Joan den martitzen goizean bota zituzten autobus geltoki ondoko makala eta astigarra. Pazkoetarako zezen-plaza han jarriko dute, eta plazarentzako tokia egiteko bota dituzte zuhaitzok. Baita, helburu berarekin, geltokiko markesinak eta telefono kabina tokiz mugitu ere (Ramon Maria Lili kalerantz). Ibargaraiko 27. zenbakia ere duela gutxi bota zuten. Gogoratu, bestalde, orube horretan etxebizitzak eraikiko dituztela.



8000



MILA ESKER

gugan konfiantza izan duzuen guztioi



eusko
alkartasuna

EAJ-EAk botoen %54,6 lortu du, 98an baino %11,6 gehiago

EAJ-EA koalizioak nabarmen gora, EH taldeak behera, eta EB, PSE eta PP alderdiek ere apur bat gora. Horixe da, oro har, joan den domekako Legebiltzarrerako hauteskundeetan Bergaran jasotako botoek eman duten emaitza.

EAJ-EAk 5.664 boto lortu zituen, 98ko hauteskundeetan baino 1.629 boto gehiago. EH bigarren alderdia izan da 2.134 botorekin. Hala ere, 98ko datuekin alderatuz gero, 1.200 boto galdu ditu. PPri dagokionez, hirugarren alderdi bozkatuena izan da. 98an baino 246 boto gehiago lortu ditu. EBk ere 207 boto irabazi ditu, eta PSEk 87.

Domekakoak udal hauteskundeak izan balira, ho-



Partehartzea handia izan zen Bergaran, EAE osoan bezala.

rrelaxe geldituko litzateke alderdi bakoitzaren zinegotzi kopurua Bergarako Udalean: EAJ-EA koalizioak 11 zinegotzi, gaur baino hiru gehiago. EHk, berriz, 4; gaur baino 3 gutxiago, eta

PSEk eta PPK bana, gaur egun bezala.

Horrez gain, Bergaran ere parte-hartzea handia izan zen herrian banatutako hemezortzi mahaietan % 81,4koa hain zuzen ere.

Aranzadi ikastolaren oharra herritarrei

Joan den domekan, hilaren 13a, hauteskunde eguna, Martinez de Irala ikastetxeko hauteslekua eta inguruak zaborrez zikinduta zeudela eta, Aranzadi ikastolako zuzendaritzak adierazi nahi du, garbitasuneko langileen grebaren barruan garbitzaileek protesta gisa egindako ekintza izan zela zikinkeria egoteko arrazoia.

Udalaren aldetik txukuntzeko borondatea azaldu bazuten ere, in-terbentore batek egindako presioagatik lana bertan behera utzi behar izan zuten. Hurrengo astelehenean, hilak 14, haurrak eskolan sartu aurretik, dena garbi zegoen.

Hauteskunde autonomikoak 98 Bergaran

| | Hautesle errolda | | Abstentzioa | | EA | | EH | | PSE | | PP | | IU | | Beste batzuk | |
|-------------------|------------------|---------------|-------------|--------------|-------|--------------|-------|--------------|------|------------|------|--------------|------|------------|--------------|-----------|
| | 1998 | 2001 | 1998 | 2001 | 1998 | 2001 | 1998 | 2001 | 1998 | 2001 | 1998 | 2001 | 1998 | 2001 | 1998 | 2001 |
| Erdialdea | 5.925 | 6.003 | %24,8 | %17,1 | 2.086 | 2.828 | 1.481 | 1.009 | 342 | 393 | 360 | 463 | 128 | 275 | 7 | 4 |
| Matxiategi | 3.294 | 3.191 | %27,6 | %19,6 | 936 | 1.345 | 847 | 497 | 285 | 301 | 207 | 308 | 67 | 112 | 6 | 3 |
| Martoko | 2.191 | 2.101 | %29,5 | %23,1 | 549 | 799 | 533 | 314 | 195 | 203 | 160 | 203 | 86 | 86 | 9 | 5 |
| Ibarra | 987 | 922 | %29,0 | %20,3 | 301 | 462 | 311 | 184 | 31 | 33 | 33 | 29 | 14 | 22 | 1 | 0 |
| Osintxu | 515 | 517 | %31,3 | %19,3 | 163 | 230 | 162 | 130 | 9 | 19 | 8 | 18 | 10 | 17 | 0 | 1 |
| GUZTIRA | 12.912 | 12.734 | %26,9 | %18,6 | 4.035 | 5.664 | 3.334 | 2.134 | 862 | 949 | 768 | 1.021 | 305 | 512 | 23 | 13 |

Oharra: oraingoan EAJ eta EA batera aurkeztu direnez, aurreko urteetako datuak ere batu egin ditugu.

ARRANO

Taberna
 Kruz Gallastegi BERGARA

BANKINTER
%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan
 Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera komisioa: %0,25. 35 urte bitartearaino

ANTIA
 HARATEGIA URDAITEGIA
 Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
 Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Txosnaguneak egitarau propioa izango du aurten ere

Txosna Batzordeak lanean dihardu aurten ere. AEK, EHE, Gazte Asanblada eta Gestorek sortu zuten izaz. Helburua txosna gunean hainbat ekitaldi antolatuz, jaiei "bizitasun handiagoa ematea" izan zen. Baita, "euskarak eta euskal kulturak jaietan izaten duen presentzia handitzea ere". Aurten helburu berberak dituzte Batzordekoek.

Hiru txosna egongo dira Bideberrin: Gestorak, AEK eta EHEk jarriko dituzte. Gazte Asanbladakoek, kartzela zaharrean lokala duteenez, ez dute txosnarik jarriko. Hala ere, Batzordeko kide izaten jarraitzen dute.

EGITARAU ALTERNATIBOA

Arestian aipatutako helburuak gauzatzeko, hainbat ekitaldiz osatutako egitarau alternatiboa antolatu du Batzordeak Pazkoetarako.

Ekainaren 1ean, jaiei hasiera emateko, 20:00etan txosnak ireki eta trikitalariek



Ohiko gunea, Bideberrin hiru txosna jarriko dituzte aurten.

ARTXIBOA

lagunduta poteoa egingo dute, txosnetan hasi eta tabernaz taberna. Ekainaren 2an, zapatua, argazki, kartel, pegatina eta abarrekin panel informatiboak jarriko dituzte txosnagunean. Ekainaren 3an, domeka, txotxfesta antolatu dute. Sagardo kupela eta jatekoa egongo dira Bideberrin, eta edalontzia erosiz gero, nahi beste jan eta edateko aukera egongo da. Gauean, berriz, kontzertua. Ekainaren 4an,

astelehena, 19:30etik 21:30era, 'Elektrotuna' taldearekin kalejira egongo da, eta martitzenean, jaiei agur esateko, amaiera ekitaldia. Gaztetxean ere hainbat kontzertu egongo dira. Ekainaren 1ean, Iskanbila eta Zein; 3an, Snobs, Barley Juice eta Supercools. Ekainaren 4an, The Peepshows eta Pshychopunch, eta ekainaren 5ean, Sekula Santan eta Uko. Guztiak gaueko 11etatik aurrera izango dira.

EAEko ingeniarien omenaldia Bergarari

Maiatzaren 26an egingo diote omenaldia. Industria-Ingeniaritza sortu zela 150 urte bete-ko dira aurten. Bergarak garrantzi berezia izan zuen sorrera hartan, izan ere, Estatu osoan erdi mailako hiru eskola sortu ziren: Bergarako Errege Seminarioan, Sevillan eta Bartzelonan. Ikasketak hiru urte irauten zuten eta industria-maisu titulua atera zitekeen. Goi mailako ikasketak Madrilan egin zitezkeen soilik. Bergaran hezi zituzten, hortaz, EAEko lehenengo industria-maisuak.

Omenaldia maiatzaren 26an, zapatua, izango da, goizez. 11:00etan, ingeniari elkargoetako hildakoen omenezko meza Santa Marinan. 12:00etan, plaka oroigarria jarriko dute San Martin plazan. 12:30ean, La Escuela Industrial en Bergara (1851-1860) liburua aurkeztuko dute.

3600

9000

EDEL TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

AGENTEA


Telefonoak: 943 76 23 30
eta 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54



ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00

OHARRA BEZEROEI:

Ramon Maria Liliko bulegoan arazo teknikoak ditugunez, aldi baterako bulegoa BELANBIDE KALEAN izango dugu. Ongi etorri, denok.



Berrigara

452 zenbakia.
2001eko maiatzaren 18a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usaio Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugaldia.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Juan Martin Elexpuru, Arantazu Oregi,
Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: 'Kontarte' ikuskizuneko
une bat. Egilea: Celeste Aldai.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Astelehenian "Biharamuneko pilula" salgai jarri zebe farmazietan. Zer pentsatzen jatzu?



Garbiñe Gartzia

Ondo. Antisorgaillu moduan erabiltzeko ez, baiña kasuaren arabera, ondo datorrela uste dot.



Juantxo Aldalur

Ondo pentsatzen jat. Gaurko egunian aurrerapenak bihar die, eta hori beste bat da.



Gema Oianguren

Ondo dago. Deskuidatu ezkerro, edozergaittik, atzera botatzeko aukeria ematen dotsulako.



Maritxu Markiegi

Bueno, ez dago gaizki. Nik uste dot bakoitzak zertu bihar dabela, pentsau bihar dabela zer komeni jakon.



Ramon Elgarresta

Oso ondo pentsatzen jat. Gero, norberak ikusiko dau erosi edo ez, baiña aukeria, behintzat, badago.



Candi Marijuan

Ondo dagola uste dot. Hobe hori disgustua izatia baiño.

tira biraka peru azkarate



adituen esanetan

Dermatitis atopikoa

Gaixotasun hau pertsona atopikoengan agertzen den azaleko alterazioa da. Pertsona atopikoek, besteei inolako eraginik egiten ez dieten faktoreen aurrean, gehiegizko erreakzioak izaten dituzte. Atopiak hiru gaixotasun hartzen ditu bere baitan: errinitisa (atopikoen %60k dauka), asma (%6k) eta dermatitis atopikoa (%14k). Badira gaixotasun horietako bat baino gehiago izaten dutenak ere, baina gutxi batzuk besterik ez dira.

Jaiotzatik datorren gaixotasuna da, eta hereditarioa da. Beraz, atopikoa den pertsona baten seme-alabek atopia izateko arrisku handia dute. Gainera, kronikoa da, tratamendua bai, baina sendabiderik ez dauka. Noizean behin azaltzen da gaixotasun hau; batez ere, udaberrian eta neguan.

Kasu gehienetan, jaioberritatik hasten dira sintomak agertzen, umeek hiru hilabete dituztenetik, hain zuzen ere; lehenago inoiz ez da azaltzen. Bularreko umeen kasuan, batik bat, buruan eta aurpegian, masailetan, azaltzen dira orbanak. Ume hauek oso urduriak izaten dira, negartiak, ez dute ondo lo egiten... izan ere, orbanek azkura eragiten diete.

Bi eta hamar urte bitartean, berriz, artikulazioen gunetan azaltzen dira (ukalondoan eta belauen barrualdean, esaterako) eta baita lepoaldean ere.



CRISTINA GARCÍANDIA


Dermatólogoa

«Pertsona atopikoek oso azal sikua izaten dute, eta azala hidratatzeko produktu bereziak erabiltzea komeni zaie»

Kasuen %90ean, nerabezaro amaieran, 16-17 urterekin, desagertu egiten da gaixotasuna.

Pertsona atopikoen azala oso sikua izan ohi da, eta horixe da eraberean, orbanak azalerraztea errazten duena ere. Azala hidratatzeko produktu bereziak erabili behar dituzte, oloarekin (*avena*) eginikoak. Bestalde, xaboi azidoak erabiltzea izaten da gomendagarriena; azala narritatuko duen arroparik ez erabiltzea. Azkenik, kortikoideak ere erabiltzen ditugu. Jendea asko beldurtzen

da hori entzutean, baina, nik uste dut beldurra galdu behar zaiela. Kortikoideetan potentzia ezberdinetakoa produktua daude, eta kasu bakoitzean, dosi ezberdinak erabiltzen ditugu.



Bularreko umeei, batik bat, aurpegian ateratzen zaizkie orbanak.

kaleen izenak



Justo Garate plaza berria.

Justo Garate plaza

Arau subsidiarioetan sortzea aurrez ikusten zen plazari, Justo Garate izena jartzea erabaki zen 1994ko uztailaren 26an egindako Udal Osoko Bilkuran. Aipatutako plaza hori orain egin berria da, Ibargarai hiribidearen, Errege Seminarioko kirol zelaiaren eta Belanbide kalearen artean, hain zuzen. Batzar berean onartu zen Justo Garate gure herriko seme kuttun izendatzea ere.

Bi erabaki horien bitartez, 1900. urtean Barrenkale 27 etxean jaio eta Argentinako Mendoza hirian hildako Justo Garate Arriola omendu nahi izan du Bergarak. Gizon honen jakituria eta bere herriarekiko maitasuna eskertzeko modu bat izan da.

Lanbidez medikua zen arren, beste arlo askotan ere aritu zen: idazle, hizkuntzalari eta politikoa, besteak beste. Medikuntza ikasketak bukatu ondoren, Alemaniako hainbat tokitan eta Parisen egin zituen sakontze ikasketak bereziak. Gerra aurretik Eusko Ikaskuntzako kide zen eta "Acción Nacionalista Vasca" partidu politikoren sortzaileetako bat izan zen. Gerra garaian, Eusko Jaurlaritzak Bilboko Medikuntza Fakultatea martxan jarri zuenean ere han ibili zen lanean. Gerra ondoren, baina, familia hartu eta Argentinara joan behar izan zuen; eta han Unibertsitateko irakasle izan zen jubilatuta arte.

Idazle oparoa, luze joko luke Justo Garatek bere bizitzan zehar idatzi zituen liburu eta artikuluen denak aipatzeak, eta baita berari buruz idatzi den guztia hemen azaltzeak ere. Idatzi zituen azkeneko liburuetariko bat Bergarako Udalak argitaratu zuen iaz bere jaiotzaren urteurrena ospatzeko. Eusko Ikaskuntzak duen "Lankidetzan" bilduman argitaratu zen liburu honetan, jakintsu eta idazle askok aztertzen dute Justoren bizitza eta lana.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.

Turismoa eskura

Joan zen astebukaeran, Seminarioen jarritako karpn, **turismoari buruzko azoka** egin zuten, Feritur turismo azoka. Zapatuan eta domekan egon zen zabalik, eta 4.000 bisitari inguru ibili ziren hamazazpi erakusmahaiak ikusten. Mankomunitateak eta Halcon Bidaiak antolatu dute azoka, eta besteak beste, Debagoieneko eskaintza turistikoak ikusgai egon ziren.



IMANOL LARRANAGA

Ardoa aitzaki

azko kurtsoan fin ibili zen lagun talde hau enologiako **ikastaroan**. Ardoari buruz jakin behar den ia guztia ikasi zuten, eta joan zen zapatuan, ikasitakoa gertuagotik ezagutzera joan ziren. **Jardunek** antolatutako ikastaroa izan zen iazkoa, eta irteera hau ere Jardun euskara elkarteak antolatu du. Villanuevako Luis Cañas eta Samaniegoko Ostatu bodegak bisitatu zituzten.

Udaberriko jaia San Joxepen

Joan zen martitzen arratsaldean, **udaberriko jaia** ospatu zuten San Joxepe elkarteak. Jende mordoak elkartu zen hantxe, bete-bete egin da zeuden elkarteko bi gela handiak, eta berandu ibili zirenek **dantza ordura** arte itxoin behar izan zuten, eserlekua harrapatzeko. Izan ere, meriendatu ostean, dantza saioa izan zuten, eta jende asko animatu zen, eserlekuetatik altxatu, elkarri heldu, eta dantza egitera. Giro ezin hobea izan zuten, dudu barik.



3600

3600

NACHO DE VICENTE



akriliko-erakusketa

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

3600



1800

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

1800

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Aintzane Irizar **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 79. zenbakia. 2001eko maiatzaren 18a.

Elkartasun festa hilaren 26an

Anelkarrek Senegalera materiala bidaltzeko dirua batuko du

Maiatzaren 26an, arratsaldeko 17:30-ean jarri dute hitzordua Anelkarrekoek Zurrategi plazan. Aurten Bidezko Merkataritza bultzatzeaz eta ezagutarazteaz gain, Senegalerako dirua batu nahi dute Antzuolako elkartasun taldekoek. Horretarako, kamisetak salgai jarriko dituzte.

Hala ere, ekimen hau ez zen Anelkarrengandik sortu. Izan ere, Kristina Bakaikoa antzuolarra egon zen Senegalen, eta bere ekimena izan da Senegalerako dirua batzea, nahiz eta Anelkarrek lagundu dion.

Kristina iazko urrian egon zen Senegalen, eta hango elkarte bat ezagutu zuen, legendarra dutenei laguntzeko elkarte bat, hain justu. Casamance herriaren daude legendarrenak, eta orain daukaten beharrik premiazoena argindarra sortzeko eta ura ateratzeko generadore bat da. Horretaz gain, legendarrendako botikak eta eskoletarako materiala erosteko ere erabiliko dute batutako dirua. Diapositiba emanaldia ere egingo dute, eta hantxe egongo da Kristina, azalpenak emateko. Bestalde, Bidezko Merkataritza bultzatzea dute helburu Anelkarrekoek. Jendeak kontzientzia hartu dezala lortu nahi dute. Hirugarren munduan egiten diren produktuak salduko dituzte, baina baldintza egokietan ekoiztutakoak, hau da, esplotaziorik gabeko baldintzetan ekoiztutakoak.

HIRUGARREN MUNDUARI BEGIRA

Anelkar 1998an jaio zen elkarte bezala. Hala ere, 1992tik datorren kontua da, Kontxi Laskurain Anelkarreko ki-deak azaldu digunez. Izan ere, Juan Antonio Lizarralde Brasilen zegoen misiola-



Iazko urrian egon zen Kristina Bakaikoa Senegalen, Elorrioko lagun batekin.

ri antzuolarrak hango beharizan eta egoeraren berri eman zien bere lagunei, eta hauek Brasilerako bidaltzeko dirua batzen hasi ziren. Gero, Ruandari laguntzeko beste talde bat sortu zen, Purita Iturbe antzuolarra han zegoelako, eta Ruandaren egoera sekula baino larriagoa zelako. Eta Bosniari laguntzeko beste talde bat ere sortu zen. Hala, Antzuola bezalako herri batean hirugarren munduari laguntzeko hiru talde gehiegi zela eta, denak elkartu eta Anelkar, Antzuolako

elkartasun taldea, eratzea erabaki zuten. 1997an hartu zuten erabaki hori, eta hurrengo urtean sortu zen elkarte. Gaur egun, zortzi bat lagun elkartzeko dira, baina era honetako ekitaldiak antolatzen dituztenean, herritar askoren laguntza izaten dute; guztira, 50 antzuolar baino gehiago izaten dituzte laguntzaile. Aurrerantzean ere lanean jarraitzeko gogoaz azaldu dira Anelkarrekoak, eta urtean bi festa egingo eizte: udaberriko maiatzaren, eta udazkeneko, urrian.

■ ■ ■
Senegalera bidaltzeko generadore bat
erosiko dute batutako diruarekin
■ ■ ■

Mireia Unamuno GOITBko 'Alkatearekin berbetan' saioan

Herriari buruzko hamaika gai izan zituzten hizpide

Joan zen astean egon zen Mireia Unamuno saio horretan, eguaztenean, hain zuzen ere. Debagoieneko alkate guztiak elkarrizketatu dituzte dagoeneko saio horretan, eta Antzuolako alkatearen txanda zen.

Aurreko asterako aurrez ikusita zegoen arren elkarrizketa hori, telebistako bertako arazo tekniko batzuk medio, atzeratu beharra egon zen. Dena dela, Antzuolako alkateak estreinatutako zituen saio horretarako jarri dituzten dekoratu berriak.

Saioa Ojanguren kazetaria da saioaren aurkezlea, eta berarekin, beste bi kazetari aritu ziren: Marijo Deogracias eta Aintzane Irizar.

Hasteko, EHK alkatetzan daramatzan bi urte hauen balorazioa egin zuen Mireiak, positiboa, gainera. Izan ere, "alderdi guztien arteko elkarlana ona izan da" bere ustez.

Onartu berri diren aurrekontuez ere mintzatu ziren, eta Ongizatera eta Kulturara bideratutako diru-partiden garrantzia azpimarratu zuen. Antzuolako Udalak bultzatutako etxebizitzaren ekimena ere hizpide izan zuten, eta positibotzat baloratzeaz gain, aurrean bertan hirugarren etxebizitza multzo bat egiten hasiko direla ere aurreratu zuen Unamunok. Azaldu zuenez, zerrendak zabaltzen direnean jakinaraziko zaie herritarrei.

ERREKA ETA BEASAIN-DURANGO

Errekaren auzia "epe motzera konponetzea nahi dugu; erabakia ez da denek gustukoa izango, baina oraingo egoera ere ez da hobe, arrisku handia dago eta", adierazi zuen.



Joan zen eguaztenean zuzenean eskaini zuten 'Alkatearekin berbetan' saioa.

Beasain-Durangok ere sortu du zeresanik. Udalak lehenbailehen egitea eskatu du: "ez dauka zentzurik Bergarako zatia eta Ormaiztegitik Zumarragarakoa aurreratu, eta Zumarragatik Bergararainokoa 2007ra atzeratzeak".

Industrialdea egiteko prozesua ere abian da; Deskarga inguruan egingo dute. Mireiaren esanetan, "industrialdea egitea planteamendu oso ausarta da Antzuolarentzat, inbertsio handia eskatzen du-eta". Dena dela, aurrera doa, eta herriko enpresek ere oso jarrera ona erakutsi dute.

ANTZUOLAN EZIN IKUSI SAIOA

Esan bezala, aurreko asteko eguaztenean, zuzenean eskaini zuten elkarrizketa hau. Baina antzuolarrek ezin izan zuten ikusi. Antzuolako Udalak baietza eman zion Goiena egitasmoari, eta bazkide laguntzaile egingo dela ere adierazi zuen. Baina GOITB ez da ikusten. Mireiaren esanetan, "arazo teknikoak daude horretarako; Eusko Jaurlaritzak ez digu oraindik Euskal Telebistaren antenak erabiltzeko baimenik eman". Dena dela, zinean izango dute saioa ikusteko aukera nahi duten antzuolar guztiek.

Uda ostean hirugarren etxebizitza multzoa egiten hasiko da udala

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Ganadurik gabe, baina zapatuan ospatuko dute San Isidro eguna

Hala ere, egongo da zer ikusi eta zer erosi. Lore sikuekin sortak egiten dituztenak, musika tresnak eta altzariak euren eskuekin egiten dituztenak... denetik ikusi ahal izango da zapatuan. Na-parria dela-eta ganadu feriak egiteko Eusko Jaurlearitzak ezarritako debekua bertan behera laga duten arren, berandu zen ganadu feria antolatzeke.

Besteak beste, antzuolar artisauak ere egongo dira: Joseba Gastiain, Francisco Castro eta Diego Sanchez.

Udalak antolatutako lehiaketara aurkeztutako kukumarro guztiak ere ikusgai egongo dira goiz osoan. Lau talde aurkeztu dira aurten: erretiratu talde bat eta hiru gazte talde.

Goizeko 11:00etan meza ospatuko dute. Meza ostean, eta sasoi bateko ohiturari jarraituz, Jokin Solozabal eta Unai Agirre bertsolariak arituko dira udaltxeko balkoitik bertsoan.

Arratsaldeko 18:30ean erromeria izango da Zurrategi plazan, Muganix taldearekin.



Kukumarro erakusketa eta sari banaketa egingo dute zapatu goizean.

GAZTETXEKO EGITARAU BERTAN BEHERA LAGA DUTE

Egitarau zabala gertatu zuten Gaztetxe-koek, baina azterketak direla-eta, lana pilatu zaie. Prestaketa lanei ezin die-

tela eutsi ikusita, aurrez ikusitako ekitaldi guztiak bertan behera lagatzea erabaki zuten, eta halaxe azaldu dute herriko kaleetan jarri dituzten oharretan ere.

Txapela jantzita etorri zen Aritz Berraondo

Finalera heldu bakarrik ez, irabazi ere egin zuen antzuolarrak. Aurreko Kontuolan aurreratu genizuen moduan, jende mordoan joan zen Antzuolatik Donostiara Aritz animatzera, eta badirudi zerbaitetarako balio izan zuela, 22-16 nagusitu zitzaion-eta Xalari. Bueltan, eztarriak xanpainez bustitzeko aukerarik ere ez zuten galdu, pozik asko bueltatu baitziren Antzuolara, txapel eta guzti. Ia datorren urtean lehen mailan ere horrelakoak ikusteko aukera ematen digun Berraondok!



1800

5400

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditenteak bideratzen ditugu



Alkatea eguerdi partean joan zen botoa ematera.

EAJ/EA koalizioa garaile Antzuolan ere

Antzuolan ere EAJ eta EA alderdiek osatutako koalizioak jaso zituen boto gehien, alde nabarmenarekin, gainera. Izan ere, 713 boto lortu zituen koalizio horrek, eta Euskal Herritarrok izan zen hurrengo botorik gehien jaso zituena, 388 botorekin. EAJ/EAk, beraz, botoen erdia baino gehixeago; EHk, ostera, %27. Gauzak horrela, duela hiru urteko legebiltzarrerako hauteskondeekin alderatuz, 213 boto gehiago jaso ditu EAJ/EAk, eta EHk, aldiz, 144 gutxiago. Beraz, EAEn gertatu denaren antzerakoa gertatu da Antzuolan ere. Gainerako alderdiei dagokienez, PSEk 142 boto eskuratu ditu, PPk 99 eta Ezker Batuak 46. Azkenik, aipatu behar dugu, Mireia Unamuno ez dela legebiltzarkide izango. Antzuolako alkatea seigarren tokian aurkeztu zen EHren Gipuzkoako zerrendan. Baina Euskal Herritarrok alderdiak Gipuzkoan lau legebiltzarkide besterik ez ditu lortu.

Emaitzak

| | 1998 | | 2001 | |
|----------------|-------|------|--------------|--------------|
| Errolada | 1.622 | %100 | 1.636 | %100 |
| Botoak | 1.317 | %81 | 1.402 | %86,7 |
| Abst. | 305 | %19 | 211 | %15 |
| EA/EAJ* | 500 | %38 | 713 | %50,8 |
| EH | 536 | %41 | 388 | %27,6 |
| PSE-EE | 161 | %12 | 142 | %10,1 |
| PP-UA | 75 | %6 | 99 | %7 |
| EB-IU | 33 | %3 | 46 | %3,2 |
| Besteak | 3 | - | 3 | - |
| Zuri/Baliog. | 9 | - | 11 | - |

*EAJ eta EA ez ziren batera aurkeztu 1998ko legebiltzarrerako hauteskondeetan.

EUSKAL SELEKZIOA IZANGO DUTE HIZPIDE HAINBAT KIROLARIK

Maiatzaren 30ean, eguaztena, mahai ingurua izango da Antzuolako Udalak antolatuta. Gaia: Euskal Seleksioa, seleksioaren alde arituko dira hainbat kirolari ospetsu: Realeko Aranburu, Lopez Rekarte eta Iker Sarriegi; Athleticeko jokalaria ere etorriko dira, zeintzuk izango diren zehaztu barik dagoen arren; mendi federazioko ordezkariak ere hantxe izango dira, eta azkenik, baita Antzuolako Aritz Berraondo pilotaria eta Antxintxika triatloi taldeko Aitor Larrea ere. Hitzordua, esan bezala, maiatzaren 30ean, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

EUSKAL PIRINIOETARA IRTEERA ARROLAK ANTOLATUTA

Oraingo astebukaeran bertan egingo dute irteera Arrolakoek euskal pirinioetara, Irati basoa eta inguruak ezagutzera, hain zuzen ere. Irteera hau maiatzaren 26 eta 27an egiteko asmoa zuten arren, aurreratzea erabaki zuten, asteburu horretan jaunartzeak ospatuko direlako Antzuolan.

Zapatu goizean irtengo dira Antzuolako plazatik, eta joaten direnek, lo egiteko zakuez gain, bi egunetarako bazkaria eraman beharko dute. Afariar Arrolakoak eurak arduratuko dira. Lehenengo egunean, Burdinkurutzetako mendatetik Okabeko mendi gailurrera joango dira. Domekan, berriz, honako irteera egingo dute: Iratiko etxoletatik Eskalea mendira. Domeka iluntzean bueltatuko dira Antzuolara. Oraindik ere, azkar ibiliz gero, baduzue izena emateko aukera, tokirik egonez gero, behintzat; autobusa eta lo egiteko tokia 30 pertsonarendako hartu dute Arrolakoek.

PALETA TXAPELKETAKO FINALA

Maiatzaren 26an, zapatua, jokatuko dituzte paleta txapelketako finalak Udaltalotalekuan. Andoni Rodriguez-Aitor Azkarate bikoteak, Biteri aita-semeak izango ditu aurrean.

1800
KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

1800
GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buzinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

1800
LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

1800
KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Mokatet eta tapizatuak •

Moisesek hogei urte baiño gehiago daroia Olaso etxian lanian. Olaso fundaziñoko kidea da, eta etxia eta lorategixa zaintzia dira bere eginbiharrak. Barrenkalian daukan lokalian be egoten da, gauzak berriztu eta konpontzen.

Ze lan egitten dittuzu Olaso etxian?

Erretirauta nago, baiña Olaso dorria zaintzia *hobby* bezela daukat. Dorreko zaintzaille bezela nago, lorategixa konpondu, zaindu...

Lorategixan aritzen zara. Ze lora gustatzen jatzu gehixen?

Hortentsiak gustatzen jat; gorri batzuk jarri dittu lorategixan, eta oso polittak geratu dira. Geranixuak be polittak dira.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Neure gauzak; danetik egitten dot: gauzak berriztu, konpondu... ez daukat aspertzeko denporarik.

Asteburu baterako plan ideal bat?

Betikua: txikito batzuk hartu, lagunekin elkartu...

Gustoko janari bat?

Arraiña: txipiroiak, bixigua, txitxarrua labian...

Eta edari bat?

Ardau beltza, zenbat eta arda hobia, hobeto.

Zela definittuko ziñuke zeure burua?

Geldi egoteko pertsonia ez naiz; bestalde, oso zabala naiz, ez naiz gauzak zulo txiki batetik begiratzen daben horretarikua; nik leihua zabaldu eta dana ikusten dot.

Manixarik badaukazu?

Bai, morduia, baiña inportantziarik barekuak; kuestiñua da iñori kalte ez egittia, eta saiatzen naiz.

Moises Lazkano

Bestiengan, zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Fintasuna eta formalidadia, nahiz eta nik horretatik gutxi eduki, beste batzuk eduki deixiela hori.

Ze eskatzen jatzu bizitzari?

Osasuna.

Egunkarixan, zer da irakurtzen dozun lehenengua?

Politikia eta kirolak.

Eta sekula irakurtzen ez dozuna?

Eskelak ikustia ez jat gustatzen, tristuria emoten doste-eta.

Ze kirol gustatzen jatzu?

Futbola: Realzalia naiz, baiña euskal talde danek irabaztia gustatzen jat.

Bizitzeko tokirik aproposena?

Bergara asko gustatzen jat.

Eta oporretarako?

Euskal Herriko kostaldia. Benidormera ez naiz sekula jun, eta naiz jungo, gaiñera.

Loterixia tokatu ezkeru, zer egingo ziñuke?

Ez naiz oso diruzalia, bizitzeko adiña badaukat, eta konformatzen naiz.

Amets bat?

Ni bizi naizen bittartian, abertzale guztiak batu eta aberrixa aurrera etaratzia, independentzia lortzia, eta bakia.



3600

3600

4000

3600

POL-POL
Taberna
 943 76 07 78

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24
 Tf. 943 76 70 29

BERGARA
HORTZ
KLINIKA

Odontologia
 orokorra
 Protesiak
 Ezarpenak
 Hortzen estetika
 Ortodontzia

Bidekurutzeta, 6
943 76 05 77

Ur~bide
 ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea
BERGARA
 943 76 00 57
 630 261 617



Apirilean egon zen Pablo Bergaran, Venezuelara eramán dituzten makinak ikusi eta eskerrak ematen.

Bergararik Venezuelara

Bergara, Antzuola eta Elgetako 28 enpresak eta Miguel Altuna institutuak parte hartu dute ekimen honetan. Institutuan zeuden hogeita hiru makina bidali dituzte Venezuelara, Pablo Mandazenek sortutako La Salle fundazioaren lanbide eskola batera, hain zuzen ere. Enpresek, aldi berean, Miguel Altuna instituturako makina berriak erosi dituzte.

Aipaturako enpresek 70 milioi jarri dituzte Miguel Altuna instituturako makina berriak erosteko: 20 makina berri jarri dituzte guztira. Joan zen apirilaren 4an etorri zen Pablo Mandazen La Salle fundazioko hainbat kiderekin Miguel Altunara. Tailerrean zeuden makinak ikusi ostean, hitzaldi bat ere eskaini zuen, euren lana zein den azalduz, eta ekimen honetan parte hartu duten guztiei eskerrak emanaz.

1800

MAKINA BEHARRA IRAKASKUNTZARAKO

Iazko uztaillean jarri zen Pablo Mandazek, Gines anaia bezala ezagunagoa, Elay enpresako arduradunekin harremanetan. Mandazek eskaera argia zen: fundazioko lanbide eskolarako makinak behar zituzten. Erabilitako edo atzera lagatutako makinak izatekotan, fundazioari ematea posible ote zen galdetu zion Pablok Elayko arduraduneari. Hauek begi onez ikusi zuten proposamena, baina Miguel Altunako arduradunekin harremanetan jarri ziren,

3600

nahi izanez gero, proiektu horretan parte hartu zezaten. Hala, proposamena onartu, eta lanari ekin zioten.

ELEMENTALETIK GUAYANARA

Hasierako hartu-eman haien ondorioz, Miguel Altunako arduradunek honakoa proposatu zuten: eurei makina berriak erostea, eta oraingo tailerrean dauden 23 makina La Sallek Guayanara daukan lanbide eskolara bidaltzea. Begi onez ikusi zuten hau, baina aurrekontu handia eskatzen zuenez, enpresa gehiagoren kolaborazioa beharrezkoa zuten,

1800

ARREGI

**Eraikuntza
materialak**

Biltegia Tellerian, Labegaraian.
Tf. 943 76 27 93

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

iRUDI

**Erloju denda
Bitxitegia**

Ibargarai, 2
943 76 51 65

eta hori ere lortu zuten ekimen honen bultzatzaileek: guztira, Antzuola, Elgeta eta Bergarako 28 enpresak parte hartu dute.

Apirilean abiatu ziren makinak Venezuelara aldera, eta oraindik Guayanako eskolara iritsi ez diren arren, portuan egi daude eskolara garraiatzeko zain. Institutuan ere, duela pare bat aste jarri dituzte makina berriak.

HARREMANA HASI BESTERIK EZ DA EGIN

Miguel Altuna institutua, sortu berri den harremanari eutsi, eta aurrerantzean ere, era honetako edo sortu daitezkeen bestelako proiektu eta hartu-emanekin jarraitzeko gogoz azaldu da. Jose Mari Larrañaga zuzendariaren esanetan, «elkar-truke programak garatu edota hezkuntza sistemari dagokionez gure laguntza eskaintzeko prest gaude, baina denborarekin, ikusiko dugu zer beharizan eta ideia sortzen diren». Parte hartu duten enpresak ere pozik daukete esperientzia honekin.



Inguruko 28 enpresak 70 milioi jarri dituzte, M. Altunako tailerrera makina berriak erosteko.

LA SALLE FUNDAZIOA

Duela 54 urte sortu zuten fundazio hau, eta fundatzaileetako bat izan zen Pablo Mandazen. Zientzia eta Hezkuntza alorrean diharduen erakunde bat da, eta

euren helburu garrantzitsuena Venezuelako gazteei lanbide heziketa eskaini, eta era horretan, lana topatzea da. Azken batean, bertako baliabideak erabili eta ekonomia bultzatzea.<

Ekimeneko enpresak

| | |
|----------------------|------------------------|
| Aceralia | Iraundi |
| Alura S.L. | Izpi |
| Balzars-Elay | Lacor-Ibili |
| Bergara Mekanizatuak | Lazpiur |
| Candi (Mayc) | Lazpiur GKN |
| Ecenarro Koop. Elk. | Linacisoro |
| Elay Taldea | Matz-Erreka Koop. Elk. |
| Espites | Metagra |
| Eusko | Orni |
| Fegar | Recyde |
| Gallastegi | Soraluce Koop. Elk. |
| Goizper Koop. Elk. | Tecnosystem |
| Gurea | Torunsa |
| IAM | TTT |



Pablo Mandazen edo Gines anaia, euskaldun unibertsala

Duela pare bat hilabete euskaldun unibertsal izendatu dute Pablo Mandazen. Betidanik sentitu da garraldarra, nahiz eta Ariben (Nafarroan) jaio zen duela 89 urte. Izan ere, jaio eta egun gutxira eraman zuten Garraldara. Pablo jaio eta biharamunean hil zen aita. Amak Garraldako Herriko Etxeko tabernaren ardura hartu zuen. Hamabost urte zituela Garralda utzi eta Bartzelonara joan zen, oraindik jarraitzen duen ibilbidearekin hasiera: ikertzea, ikastea eta besteei zerbitzatzea. Eta oraindik ere, 89 urterekin, lanean jarraitzen du La Salle fundazioan.

Bartzelonan, Bigarren Hezkuntza eta Maisu Diplomatura egin zituen. Erljio Diplomatura ere egin zuen, Lambecquen (Belgikan). Venezuelako Universidad Centralen, berriz, Natur Zientzian lizentziatu zen, eta Zoologian Doktoregotza egin zuen. Orduki, etengabe aritu izan da natur zientzien eta pedagogiaren alorrean ikertzaile lanetan. Familiako tradizioak eta Espainiako Gerrak bultzaturik joan zen Venezuelara. Euskara nahiko galdu duen arren, euskaldun sentitzen da. Hala, euskal diasporaren eraketan parte hartu zuen, denborarekin Caracaseko euskal etxea izango zena sortzen lagunduz.

5400

1800

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

ile apaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka, 7 • Tf. 943 76 00 55

Beti-Busti taldeko kideak bikain Cuencan eta Euskadiko txapelketan

Beti-Busti taldeak Euskadiko txapelketan parte hartu zuen aurreko astebukaeran Bidasoan, eta emaitza ona lortu zuen. Era berean, duela pare bat aste Cuencan izan ziren, Espainiako piraguismo txapelketarako proba puntuagarria jokatzen. Han ere onenen artean izan genituen Beti-Bustikoak.

Joan den apirilaren 30ean, Espainiako Kopa txapelketarako proba puntuagarriak jokatu ziren Cuencan. Beti-Busti taldeko sei kirolarik proba horietan esku hartu zuten eta emaitza bikainak lortu zituzten. K-1 modalitateko seniorretan Gorka Fernandez 12. sailkatu zen; Espainiako sailkapenean 20. da une honetan. Junior mailan, Eneko Iturrospe eta Jokin Guridi aritu ziren eta 4. eta 5. sailkatu ziren, hurrenez hurren. Sailkapenean 13. eta 18. ditugu kirolariok. Enekok, gainera, aukera du aurtengo udarako Espainiako junior selekziora deitua izateko. Nesken kadete kategorian Lierni Errasti 7. sailkatu zen. Espainiako sailkapenean 19. dugu. Mutilen kadete kategorian Iraitz Artola eta Markel Agirre aritu ziren eta



Beti-Bustikoak Cuencan: Lierni Errasti, Markel Agirre, Iraitz Artola eta Iñaki Gallastegi. Atzerago, Jokin Guridi, Eneko Iturrospe eta Gorka Fernandez.

7. eta 10. sailkatu ziren, hurrenez hurren. Espainiako sailkapenean 37. eta 43. ditugu. Taldekako sailkapenean, Espainiako Estatu mailan, 5. sailkatu da Bergarako Beti-Busti kirol elkarte.

Partaidetza bikaina, hortaz, Iñaki Gallastegik prestatzen duen taldeak Cuencan

izandakoa. Taldeak aukera izan zuen, halaber, hiri-herri ikusgarri hura ikusteko eta turismo apur bat egiteko.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Bestalde, joan den zapatuan, Euskadiko txapelketa jokatu zen Bidasoan, Endarlatza inguruan. Hantxe ere

emaitza aipagarriak lortu dituzte Beti-Bustik.

K-1 modalitatean, seniorretan, Gorka Fernandez 16. sailkatu zen eta junior mailan Eneko Iturrospe eta Jokin Guridi 2. (txapeldunorde) eta 4. sailkatu ziren, hurrenez hurren. Nesken kadete kategorian Lierni Errasti 5. sailkatu zen. Azkenik, kadetetan Markel Agirre txapeldunorde izan zen eta Iraitz Artola 7. postuan sailkatu zen.

Taldeak ere sarritu izan zen mutilen eta nesken taldekako sailkapenean, eta sailkapen orokorrean ere hirugarren postua lortu zuten piraguista bergararrek.

Astebukaeran, Lleidako Pons herrian jokatu den Espainiako Kopa txapelketako azken proba puntuagarria izango dira. Uztailaren 20an, berriz, Espainiako txapelketa jokatu da Lleidan bertan, L' Seo d' Urgellen, eta kopa txapelketako orain arteko emaitzak kontuan hartuta, Beti-Bustikoek sailkatzeko aukera handiak dituzte. Gallastegiren arabera, taldeak laugarren postua lor dezakete.

Infantil mailako lau paltsestei dagokienez, Gipuzkoako txapelketa izango dute datorren ekainaren 2an, Iruenen.

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

Irala 3
Telefonoa:
943 76 48 26



IRRINTZI
k a f e t e g i a

Bigarren erregionaleko futbol taldea finalean

BKEko 2. erregionaleko futbol taldeak finala jokatu du Ondarruko Aurreraren aurka bihar, zapatua, Azkoitiko Txerloia futbol zelaian, 17:00etan. Bi taldeak euren multzoetako txapeldunak izan dira eta hurrengo denboraldian lehen erregionalean izango dira, Pasajes eta Loiolako taldeekin batera. Lehen fasean Bergarak 1-0 irabazi zien ondarrutarrei Ipintzan, eta han 3-2 galdu zuten mahoneroek.



Karlos Lasaren taldeari biharko finala irabaztea falta zaio bakarrik.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Eibar
Ohorezko mailako kadeteak
Domeka. 11:00. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Aloña Mendi
Kadete mutilak
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

Bergara-Zarautz

Gaske mutilak
Zapatua. 17:30. Kiroldegia

SASKIBALOIA

Bergara-Zarautz
Kadete mutilak
Zapatua. 12:00. Kiroldegia

PILOTA

Herri arteko txapelketa
Bergara-Arrasate
Gaur, egubakoitza, udal pilotalekuan,
19:30ean.

Bergara Hiria txapelketa

Martitzenean, udal pilotalekuan,
19:30ean

RACHAEL OLABARRIA / Eibartarrak futbol taldeko jokalaria

"Zaila daukagu asteburuan Txapeldunen Liga eskuratzea"

Rachael Olabarria bergararrak (16 urte) denboraldi bikaina egin du Eibartarrak futbol taldean. Euskal Herriko txapeldunak izan ondoren, Txapeldunen Liga jokatu dute astebukaera honetan Valentzian.

- G.** Nola iritsi zinen Eibartarrak taldera?
- E.** Euskadiko selekzioan Eibartarrak taldean ari zen neska bat ezagutu nuen, eta haren bitartez hasi nintzen eurekin jokatzeko.
- G.** Aurreko denboraldian areto futboleko jokatu zenuen. Aurten futboleraren igarotzea aldaketa handia izan da?
- E.** Bai, askoz gogorragoa da futbola. Orain ez ditut horrenbeste gol sartzen eta baloia ere gutxiago ikutzen dut. Hasieran, erre-

- gional mailako taldean hasi nintzen eta gero nazional mailako taldera igo nintzen. Taldeko gazteenetarikoa naizenez, ni baino lasterragoak eta indartsuagoak diren jokalarien aurka jokatzeko gogorra da.
- G.** Zer moduz denboraldia?
- E.** Hego Euskal Herriko ligan jokatu dugu eta txapeldunak izan gara. Astebukaeran, beste hiru talderekin batera, Espainiako txapelduna zein den erabakiko da Valentziako Txapeldunen Ligan.
- G.** Zeintzuk dira faboritoak?
- E.** Guk Pozueloren kontra jokatu dugu finalerdia, eta finalera iritsi gaitezke. Hala ere, beste finalerdian Levante dago eta zaila izango da haiei irabaztea. Estatuko jokari onenetarikoak ditu Levantek. Va-

- nessa Gimbert bergararrak hantxe jokatzen du.
- G.** Euskadiko selekzioarekin ere izan zara orain gutxi Tenerifen.
- E.** Bai, 17 urte azpiko taldearekin autonomien arteko txapelketa jokatu dut. Finala kanariarren aurka galdu genuen: 1-0. Ez genuen zor-terik izan.



1800

3600

1800

AGOITZ
tapiz denda

Leizariako San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

LIGAKO KANPORAKETAK

Mongatxurak-Amoskibar 8-4

KOPA KANPORAKETAK

Errotagain-Fac 9-1

Bar Ugarte-Alum. Kresala 2-5

Eri-Ortzi 5-3

Kanpazar-A Ze Flaxa 4-6

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN, KOPA

10:30: Bar Ugarte-Bayer..... Antolaketa

19:00: Cine Bank Irimo-A Ze Flaxa..... Canalejas

ZAPATUAN BARRUAN, LIGAKO PLAY-OFFA

20:00: Errotagain-Canalejas..... A Ze Flaxa

DOMEKAN BARRUAN, LIGAKO PLAY-OFFA

12:30: Mongatxurak-Bildurbarek..... Antolaketa

DOMEKAN BARRUAN, KOPA

16:00: C. Bank/A Ze Flaxa-Ugarte/Bayer..... Errotagain

19:00: Errotagain-Eri Bayer

ARGI!

Kopako finalerdiak

Domeka arratsaldean kopa txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte. Alde batetik, zapatuko kanporaketetan garaile ateratzen diren taldeek elkarren aurka jokatuko dute, eta beste finalerdia Errotagain eta Eri taldeen artekoa izango da. Azken bi hauek maila ona erakutsi dute txapelketaren azken txanpan. Kopako finala hurrengo astebukaeran jokatuko dute.

Liga amaitezar

Liga txapelduna jakiteko ere gutxi falta da. Ziurrenik, Pazkoen ostean izango da finala.

Eri taldea (ezkerrean) sasoi betean dago. Bildurbarek iazko kopa txapelduna kanporatu ondoren, domekan, Ortzi, B multzo-ko liderrari 5-3 irabazi zion.



SAILKAPENA

A multzoa

| | P | J |
|-------------------------|----|----|
| 1. Bar Ugarte | 54 | 22 |
| 2. Errotagain | 52 | 22 |
| 3. Bildurbarek Opel Lam | 43 | 22 |
| 4. Amoskibar | 39 | 22 |
| 5. Pagomendi | 34 | 22 |
| 6. Bar Canalejas | 32 | 22 |
| 7. Fac | 27 | 22 |
| 8. Eri | 22 | 22 |
| 9. Irubide jatetxea | 18 | 22 |
| 10. Torrekoa | 7 | 22 |
| 11. Apa Oxemai | 4 | 22 |

B multzoa

| | P | J |
|------------------------|----|----|
| 1. Ortzi | 42 | 19 |
| 2. Kanpazar Harrobia | 41 | 19 |
| 3. Bayer | 32 | 19 |
| 4. Amilotx | 31 | 19 |
| 5. Aluminios Kresala | 30 | 19 |
| 6. Agirrebeña jatetxea | 18 | 19 |
| 7. Vacalouras | 15 | 19 |
| 8. Cine Bank Irimo | 11 | 19 |
| 9. Etengabe | 4 | 19 |

C multzoa

| | P | J |
|---------------------|----|----|
| 1. A Ze Flaxa | 39 | 17 |
| 2. Artusamak | 37 | 17 |
| 3. Mongaburrak | 36 | 17 |
| 4. Guadalest | 27 | 17 |
| 5. Komando Piperrak | 25 | 17 |
| 6. Shaktale | 17 | 17 |
| 7. Txipiron | 16 | 17 |
| 8. Patxaran Team | 8 | 17 |

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

mahoneroak



JOSETXO LIZARRALDE
BKEKO jokalaria

Ligako azken partidua jokatua genuen domekan Zamudioren aurka eta, zoritxarrez, ezin izan genuen txapelketa garaipen batekin agurtu. Bigarren itzuli osoan zehar gertatu izan zaiguna errepikatu zen: gol aukerak sortu genituen, baina ez genuen ate aurrean asmatu. Partidua hasi bezain laster Zamudiok gola egin zigun, baina ordu laurdenera-edo Arkaitz Aranak berdinketaren gola egin zuen. Hortik atsedendira bitartean beste bizpahiru aukera garbi izan genituen, baina gure hutsengatik eta zorte txarra-rengatik ez genuen beste golik egin. Zamudiok, aldiz, bigarren gola egin zuen bigarren zatiaren hasieran; bizkaitarrek etekin ezin hobe atera zieten izandako aukerei. Epailak Etor Lascurain kanporatu ondoren, 10 jokalarirekin jokatua behar izan genuen. Hala ere, merituak egin genituen zerbait positiboa lortzeko.

Otsein
Saria

Zamudioren aurka honako jokalaria hauek nabarmendu ditugu:

Asier Rodriguez.....3 puntu
Josetxo Lizarralde.....2 puntu
Arkaitz Arana.....1 puntu

Azken sailkapen orokorra:

Arkaitz Arana.....14 puntu
Josetxo Lizarralde.....13 puntu
Aritz Arabiourrutia.....11 puntu
Ander Berraondo.....11 puntu

Etexeko partidua bakarrik hartu ditugu kontuan.

3600

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: AGIRRE HORTZ KLINIKA.** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23 • **ARAMBURU HORTZ KLINIKA.** Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46 • **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HORTZ KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global).** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXE, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Eburne.**

Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:**

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

• **URKAREGI Pakita (Psikologo kliniko).** 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo kliniko).** 943 76 30 76 ■ **SEXOLOGOAK: ANA OIARZUN** Errebal 12, 2 esk., EIBAR. 943 70 24 46

$33 \times 1500 = 49.500$

Osasunez bizi izateko!



bonofotoa


Bi atari hauek kale berean daude, bata bestearen ondoan. Zein kaletan daude?

galde debalde

1. 'Biribilkote' hitza hiru hauetako zein esanahirekin parekatuko zenuke?
 A- Biribil-biribila
 B- Lodi samarra
 C- Biribil samarra

2. Zein fundaziori eman dizkio makinak Miguel Altuna institutuak?
 A- Gines anaia
 B- Pablo Mandazen
 C- La Salle

3. Zein da Beti-Busti piraguismo taldeko prestatzailea?
 A- Carlos Lasa
 B- Eneko Iturrospe
 C- Iñaki Gallastegi



Aurreko aleko saria **Maria Jesus Lizarralderentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maria Jesusi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Iñarra azpikoa**
 Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-B**

Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefona: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

Dodot
toallatxoak
 100 toallatxo+44 opari
655 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Taun Taun taldeak 'Kontarte' azken lana eskainiko du zapatuan Zabalotegin

Joan Brossa artista katalanaren antzerki irregularra, *strep-tease*-a eta poesia bisualean oinarritutako lana da *Kontarte*. Objektuak, argia eta musika dira nagusi Taun Taunen lan berrian. Zapatuan Zabalotegiko aretoan 20:00etan.



Objektuek ezinbesteko garrantzia dute *Kontarte* lanean.

CRISTINA FORES

Bitzita artea da, eta artea transformazioa. Hori zihoen Joan Brossa artista katalanak, eta horixe da nagusi Taun Taunen azken ikuskizunean: transformazioa, hain justu. Izan ere, *Kontarte* lanean objektuen transformazioarekin jokoa egiten dute, eta hasierako begiratuan gauza bat dirudienak beste zerbait ere izan daitekeela ikusi ahal izango du Bergarako antzer-

ki taldearen ikuskizuna ikustera hurbiltzen den guztiak.

Aspaldian zuen Taun Taunek Brossaren artean arakatzeko eta euren antzerkia egiteko erara ekartzeko asmoa. «Ez da erraza izan» onartu dute, baita «an-

tzerki talde gutxi ausartu» direla Brossa antzeztera ere. Taun Taunekoek, baina, «arriskatu beharra» dagoela uste dute; ohiko moldeetatik irten eta gauza berriak egin, hain justu ere.

Martxoan, Brossaren jaioterrian aurkeztu zuten,

Bartzelonan, artistaren omenegindako jardunaldi batzuetan, eta oso kritika ona jaso zuen.

GUZTIZ BISUALA

Horrela definitu dute taldekideek *Kontarte*. Ordubete inguru iraungo du saioak, eta ez du ildo argumentalik, bai, aldiz, lotura: lotura bisuala hain zuzen ere. Brossaren objektuekin egindako *strep-tease* eta poesia bisualaren arteko ibilbidea da. Musikak ere objektuen arteko lotura egiten laguntzen du.

Manipulazio eta aktore lanetan, baita zuzendaritzan ere, Karlos Odriozola, Iñaki Mata eta Itxaso Azkarate arituko dira. Argiaz Santi Ezkurra arduratuko da eta musikaz Koldo Lizarralde.

J. A. Sanchez, Zezen-zaleen kartel lehiaketako irabazle

Bilbotarra dugu, aurretik, Pazkoetako txekorretak iragarriko dituen kartelaren egilea: Jose Abel Sanchez, hain zuzen ere.

"Llevando la manada" Sanchezen margolanak zezenak eta Bergara uztartzen ditu. Batetik, San Martin plaza eta hondoan San Pedro

eliza ikusten dira; bestetik, zezen taldea plazarako bidean. Hamalau lagunek esku hartu dute lehiaketan, Bergarakoak zein Estatukoak: Madril, Zaragoza eta Santander, esaterako. Parte hartu duten lanak ikusgai daude kultura etxean maiatzaren 27a arte.



Aurtengo kuadroen maila altua azpimarratu du epaimahaiak.

5400

1800



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



Os Jardineiros saskibaloia taldea

Matxiategiko lagun koadrila honek Os Jardineiros-Miner Ardoak taldea osatzen zuen, eta garai batean, urtero, Eibarren jokatzen zen koadrilen arteko saskibaloia txapelketan parte hartzeko ohitura zuen.

Taldeko hainbat jokalarik aurretik Bergarako saskibaloia taldeetan aritutakoak zire-

1800

nez, Os Jardineiros talde indartsua zen, eta horren lekuko, txapeldunen koparekin agertzen dira jokalariek goiko argazkian. Erretratu Eibarko Ipuru kiroldetxean ateratu zuten finala jokatu ondoren, eta eguna zehazterik izan ez dugun arren, 1988-1990 bitartekoa izan daiteke. Argazkian, ezkerretik eskumara:

3600

Zutik: Jabi Garmendia, Juan Luis Gonzalez, Carlos Ugalde "Txeli", Jon Suinaga, Gabriel Etxaniz, Iñaki Arbulu, Jose Diaz eta Eugenio Cabo.

Makurtuta: Ramon Azkarate, Iñaki Martinez, Antonio Ot, Rafael Salazar eta Asier Ziarsolo.

Argazkia: Ramon Azkarate

1800

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



Zumelaga

JATETXEA

58 urte zuten zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Manufacturas LARRAÑAGA

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.

1800


BILTOKI

ASPIZA S.L.

| | | |
|------------------------------|------------------|--------------------|
| Elektrikako tresnak | Barrenkalea, 6 | Tel.: 943 76 25 96 |
| Opariak | Barrenkalea, 12 | Tel.: 943 76 04 72 |
| Dekorazioa | San Martin plaza | Tel.: 943 76 43 51 |
| Sukaldeak eta bainuak | San Pedro plaza | Tel.: 943 76 34 00 |

1955. urtean sortua 46 urte herriaren zerbitzura

3600



GUREN

INTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

2000

22 000

Mujika

BURBERRY
BANATZAILE OFIZIALA



Barrenkalea 1. Telefonoa: 943 76 29 91

22 000

ARREGI AROZTEGIA



SUKALDEAK

- Arozlan mekanikoak
- Ateak
- Horma-armairuak
- Tarimak eta Parketak
- Neoprenozko juntadun egurrezko leihoak
- PVCzko leihoak



Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. **Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.

Jakina,
zurekin
pentsatzen



6 URTEKO GARANTIA



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.